

 kale

Elgetako aldizkaria uztaila 37k.

F. IRIBAR
SALBADOR 9-1ª EZK.

Goibek

oporrak
blai



Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxa: 94 6583061.

Langile abertzaleen LABELA

Uztailaren 20an burutu genituen Elgetako enpresa handienaren, RECYDE-ren, hauteskunde sindikalak. Nahiz eta enpresak urte dexente daramatzen herrian, orain egin dira lehenengo aldiz hauteskundeak.

Emaitzen arabera komitea LABeko lau ordezkari eta ELAko ordezkari batek osatuko dute. Emaitza pozgarria edozein langile abertzaleentzako. ELA eta LABek elkarrekin azken urteetan daramaten dinamika Elgetara ere heldu da. Badirudi, hauteskunde prozesu guztian elkarrekin lan egin dutelako Euskal Sindikalgin-tzan oso garbi azaltzen direla dauden bi proiektu: batetik Euskal Herria Espainiako zati bat gehiago bezela, Espainiako proiektu nazionala eraiki nahi dutenak (UGT-CCOO); bestetik, Euskal Herria, herri aske bezela eraiki nahi dutenak (ELA, LAB, EHNE), sindikal mailan ere alde nabaria baitago. Lehenengoak erreforma laboralaren legea onartzen dute, langileak urte

luzeetako borrokaren ondorioz irabazitako lorpenak bertan behera botaz.

Sindikatu abertzaleak daramaten bidea bestelakoa da: Espainiako lege honen aurka daude eta Euskal esparru ekonomiko eta sozial baten alde.

Sindikatu abertzaleen bidea, beste arlo batzuentzako ere eredu izan beharko litzake, alderdi abertzaleek elkarrekin Euskal Herria eraikitzeko proiektu bateratu bat bultzatuz. Horretarako alderdi Espainolistekin dituzten loturak hautsi eta abertzaleen arteko akordio minimo bat bilatuz.

RECYDEko emaitzek beste irakurketa positibo bat ere badute: Ezker abertzaleak, Elgetan lehenengo aldiz, langile munduan lortzen duen ordezkari-tza da. LABeko lehenengo delegatu hauek itxaropenezko etorkizun bateko ateak irekitzen ditu.

Sebas Arantzabal

Betiko leloa

<< Bazen behin **persona** bat, Gipuzkoako herri txiki polit batetan bizi zena. Ezin esan daiteke gazte hura gaizki bizi zenik. Bai, bazituen bere arazotxoak, baina ez ziren bere adineko beste edozeinek izan ditzazkeenak baino larriagoak: irailako azterketak gainditu beharra, neskekin ligatzeko aukera emango lekiokoen pozio magikoaren bilaketa, Athleticek "Champions League" delakoaren lehenengo kanporaketa gaindituko ote duen ala ez (batek baino gehiagok galdetuko dio bere buruari

zenbaterainoko arazoa den hau!)...

Kuadrilari dagokionez beste horrenbeste. Normala hau ere. Bost zurito edan osteko bertsolariak, afizionatu mailan dabilzan txirrindularia eta pilotaria, politikoki oso ideologia ezberdina dutenak, Mikel Laboaren jarraitzaile sutsuak, azken urte hauetan indarrean dagoen "Bakalau" musika gustoko duenik ere ez da falta... Beharbada, beste kuadrila batzuekin alderatuz, gehiengoari futbolak sortarazten dien nazka eta gorrotoa (moda kontua ote?) aipatu daitezke.

Etxekoez ere ezin ahaztu. Amamantzako, munduan dagoen muti-

**Egin egunkaria eta Egin irratia-
gure elkartasuna adierazi nahi
diegu:**

1. Administrazio kontseilu bateko kide batzuri leporatutako balizko delituengatik hedabide bat istea ez dela bidezkoa irizten dugu, pertsona fisiko batzuen ustezko jardunak eta hedabidearen funtzionamendua bereiztu behar baitira.

2. Adierazpen askatasuna giza eskubide bat izanik, hedabide hau isteko erabakiak giza eskubide hori ez errespetatzea dakar, hainbat eta hainbat pertsonari informazioa jasotzeko bide bat itxi zaiolako.

3. Horrelako neurri larriek gatazka eta tentsio giroa areagotu besterik ez dute egiten.

Goibekokale

ko guapo eta maitagarriena. Aitarentzako, ikasketetan gehiago saiatu beharko litzakeen seme gaztea. Gauza bat gora ez egiten ez duena amarentzako. Eta anaiarentzako? Hobe ezer ez esatea ez baitira inoiz ados jartzen. Ez dago alde handirik zurearekiko, ezta?

Gauzak horrela, zer gehiago eskatu diezakiok bizitzari? Ba ote da munduan horrelako zortea duen beste-zenbat? Eta...>>

- Esnatu, Haritz, esnatu! Utzi amets egiteari eta hasi behingoz irailko azterketak prestatzen.

Haritz Gallastegi

Oharra: Goibekokalek, Udazken jaia egingo den egunean, argazki erakusketa egin gura du.

Ale honetan jaietako argazkirik ez duzue ikusiko, baina, esan bezela, irailaren 26an zapatua, ikusi eta erosteko aukera izango dituzue 300 argazkitik aukeratutako onentsuenak.

AENOR

ER

Empresa
Registrada

ER-714/2/96

Estampaciones **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 61



Ia ba, euskaraz!!!

Dortxe nengoen ba, Lekeition astebukaera pasatzen eta telefonoa piztu ondoren zer eta mezu bat nuela adierazi zidan, ea idatzia egingo nuen esaten zuena. Hementxe gaude ba!

Badaude pertsona batzuk, ba bere inguruagatik, nahiz eta euskaraz jakin, eskolan edo ikastolan euskaraz dabiltzalako, bai kalean eta bai etxean dena erderaz egiten dutenak. Inguru erdalduna dutelako eta joera hori dutelako. Nire familian hori gertatu da eta niretzat oso pozgarria izan da nire inguruko horiek euskaraz entzutea gau eta egunez. Badakite euskaraz eta besteekin erabiltzen dute, nahiz eta egia esan, Lekeitio aldeko euskara nahiko zaila izan ulerzteko.

Hantxe pasatu genuen astebukaera, antzerki taldeak ikusten (hizkuntza desberdinetakoak) bertako haurrekin jolasten, eta harremanak egiten. Eta nola ziren harremanak? Euskaraz, noski!

Badakit, urtean zehar euskaltegiak eta barnetegiak martxan egoten direla eta hori zoriontzekoa dela iruditzen zait. Eta haurrak zer? Euskaraz gaizki dabiltzanean partikularretara edo agian aisialdi taldeetara; horiek ordea ordu gutxi batzuk besterik ez dira. Ingalaterra edo inguru horietara bidaltzen diren bezala, zergatik ez dira bidaltzen herri euskaldunetara?

Udalekuak ere hortxe daude eta egia esan horiek ere txalagarriak dira.

Bai, askotan uste dugu, gure umeak "D" ereduan egotea nahikoa dela eta eskuak garbitzen ditugu asko egin dugulakoan. Baina argi eta garbi ikus dezakegu hori ez dela nahikoa.

Saia gaitzezen ba, denon artean, gure gaztetxoengun ingurua (etxekoa, kalekoa, eskola-koa...) euskalduntzen.

Sonia Suarez



Guztiok "egin" behar dugu

Ditza lapurtu diote Euskal Herriari. Azken hogeitau urteotan Euskal Herrian erreferentzia garrantzitsua izan den egunkaria itxi dute, eta honekin batera dagoeneko Euskal Herriko etxe askotara iristen zen irratia ere bai. Demokraziaren izenean emaniko beste pausu faxista bat. Atzerapausua nolana ere, azken finean, Euskal Herriaren elkarrizketa bideari ate garrantzitsu bat itxi baitiote.

Aurrez ongi pentsaturiko operazioa izan da, frogarik gabea bada ere. Jakin nahi nuke EGIN itxi zuten zergatik zenbaterainoko aldakuntzak izango ziren Hernaniko egoitzan; zenbat froga faltu jarri ote dituzte honezkerok!


Demokrazia gora eta demokrazia behera ematen dute egun osoa. Nik dakidala behintzat, demokrazia pluraltasuna da, aukeratzeko eskubi-dea, ikuspegi ezberdinak, interpretazio ezberdinak, iritzi kontrajarriak... Eta hauek guztiek adierazpen askatasuna osatzen dute. Adierazpen askatasuna galerazi digute, beraz, demokrazia galerazi digute.

Euskal Herria hitz eske ikusi genuen hila-hila hemezortzian Donostian. Inoiz gure herrian izan den aldarrikapen entzunenetako bat izan zen: Hitzaren aldarrikapena; kasu honetan, EGINen hitzaren aldarrikapena. Euskal Herriaren gehiengoa EGIN ixtearen aurka dago, baina ez, kanpotik, indarrez, beraien legea inposatu nahi digute. Zapaltzaileen legea.

Euskal Herriak bere bidean aurrera egin dezan ezinbestekoa da EGINen hitza. Ezinbestekoa eguneroko bizitzarako, ezinbestekoa bake biderako. Euskal Herriak bere kabuz egingo du bere bidea, horretarako ez dugu kanpotarrik behar.

EMAN HITZA EUSKAL HERRIARI !

Ainhoa Agirreazalgegi



GOJBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690.
Zuzendaria: Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Igor eta Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar.
Maketazioa: Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza.
Publizistak: Jone Oianguren eta Izaro Arrazola. (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. Tirada: 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).
Copyright-a: EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.
E-mail: goibeko@topagunea.jalgi.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Abuztuak 6an Salbador eguna

Udaletxeak baimena eman ondoren, aurten, kale atzean jarriko dute taula

Salbador bezperan, hilaren 5ean eguerdiko 14:00etan etxaflero eta kanpai hotsek emango die jaiei hasiera. Iluntzeko poteoa Elgetako Trikitilariak alaituko dute. Gaueko 22:30etan KIÑU taldearen erromeria izango dugu. Aurten taula Salbador kale atzean jarzea erabaki dute antolatzailleek, horrela ez dute trafiko arazorik eragingo eta taberna ere atze aldean jarriko da lehenengo.

11:00etan etxaflero hotsak esnatuko gaitu. 12:00etan meza ermitan. Ondoren, herrian, suelto txapelketa. Bertan, zortzi bikote izango direlarik. 14:30etan bazkari goxogoxoa izango da Bolatoki tabernan. Bazkarira joateko txartelak tabernatan egongo dira salgai. Arratsaldean bolatokia irekiko da, bolo txapelketa arratsaldeko 18:15etan hasiko delarik. 18:30etan Salbadorrera joera bizikletan.


Ondoren, jokuak haurrentzat. 19:00etan poteoa. Jaiei amaiera emateko ETZAKIT taldeak alaituko erromeria izango da.

Salbador jaiak gero eta indar handiagoa hartzen ari dira. Urtetik urtera aurrekontuan asko igerri da. Aurten 450.000pta inguru izango dira. Hau diru guztiau ateratzeko urtean zehar Patxi eta Haizea tabernatan errifak, kinielak... egi-

ten dituzte. "Udale txearen laguntza eta jendeak borondatez emandako dirua ezinbestekoak dira" Fernando Oiangurenen esanetan. Aurten, iaz bezala, txosna ere jarriko dute antolatzailleek, beraiek esan duten bezala "iaz jendeak txosnan lagundu zigun eta hau eskertzen dugu, diru iturri hori ere beharrezkoa baita". Ea aurten ere txosnarako txandak bete-tzen diren.

Bukatu dira aurtengo udalekuak

Eguraldi onak irteera ugari egiteko aukera eman du



Uztailak 24an amaitu ziren aurtengo udaleku irekiak. Uztailan zehar herriko 70 ume eta gaztetxoek kirol, jolas eta irteerak egin dituzte. Debako hondartzara,



Garaioko urtegi eta Apatako igerilekura egin dituzte irteerak. Aurten lehen aldiz, 2 urtetako haurrak eman dute izena udalekutarako. Bost begiralek eta Joserrak ahaleginak egin dituzte haur txiki eta nagusiagoek uztaileko goizak ondo pasa zitzen.

GRUPO
IFA Produkturik onenak,
prezio onenean

Tel:
76 80 98.

ALDI

Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JAETEXEA

tel: 768284

Eskualdeko barnetegi bakarra

Bigarren urtez jarraian, AEKK Elgetan antolatu du bere banetegietako bat. Elgeta herri egokia da AEKKo- en ustetan, azpiegitura minimoa edukitzeaz gain herri euskalduna baita. Goizean lau ordu eta arratsaldeko bi ordutan eskolak izaten dituzte. Arratsaldeko azken orduan, tailerrak izaten dituzte, tailer horietan dantzan, txalaparta jotzen, kantuan, jokuak egiten... ikasten dute euskaraz.

Uztailean bi talde izan ditugu. Lehenengo taldeko batzuekin egon ginen. Euskara ikastea izan dute helburu hilabete honetan. Herri txikia izan harren bertako giroa ona dela esan digute. Herriko

gazte kuadrilekin ere oso ondo konpondu dira. Eneko eta Bitorrek esan ziguten oso ondo pasatzen ari zirela "lehenengo taldean giro hobea izan genuen arren, orain ere oso ondo pasatzen ari gara". Goizeko eskolatan euskara lantzeko jolas eta idazlanak egiten dituzte. Herrikoekin ere hartu-emonak izan dituzte "gaztetxeekin, tabernakoekin... musika taldekoekin oso ondo pasa dugu, nahiz eta herri txikia izan gauza asko daude".

Gazte hauek behintzat udaldeko denbora euskara ikasteko erabili dute. Ea iazko taldetako batzuk bezala gure herrira noiz edo noiz hurreratzen diren.

80 urtetatik gorako jubilatuei omenaldia

23 Jubilatari egin die omenaldia Jubilatu Elkartek

Orain dela laupabost urte bezala, aurten ere, omenaldia egin die Jubilatu Elkartek 80 urte beteta dituzten jubilatuei. Bazkaria Durangoko jatetxe batek zerbitzatu zien Ozkarbin. 80 urte beteta dituztenak 40 bat lagun inguru dira herrian. Jubilatuen lehendakariak esan zigunez Omenaldira 33 gonbidatu zituzten Ozkarbiko zerrendan daudenak.

Ozkarbi elkartearekin duten kontratua aurten bukatzen da, Antonio Iturrigazteluren esanetan "jubilatuen elkartekook, Ozkarbin jarraitzeko asmoa daukagu, hala ere, orain, beraien eskuetan dago gu hartu ala ez". Ez dakite beraz Ozkarbirekin jarraituko duten ala lokal bila hasi behar duten. Lokalaren faltan, Udaletxearekin lehenago izan zituzten elkarriketetara bueltatuko dira.



Goibekokalen oporrak hartuko ditugu abuztuan

Urtero bezala aurten ere oporrak hartuko ditugu abuztuan. Irailak leian ez da alerik izango. Goibekokaleko lantaldearen partez oporrak ondo pasa. Badakigu denok ez duzuela hile gutzia oporretan pasatzeko aukera izango. Zuek urteko beste sasoi batean hartu dituzuen oporrak guk hile honetan hartuko ditugu. Horrela, azaroak 1a arte agurtzen gara. Eguzkia egonez gero edozein hondartza edo menditan ikusiko dugu elkar. Laster arte.

Ehiza txakur lehiaketan Juan Martin Elortza garaile

Uztailak 19an ehiza txakur lehiaketa izan zen Asentzian.

Asentzian egin da, Antzutegi inguruan egiteko ez baitute baimenik izan. Lehiaketa 23 urtetan dabilta antolatzen Ozkarbiko Ehiza eta Arrantza taldekoak.

Lehiaketarako juezarekin arazoak izan. Federazioak ez zuen jueza bidali eta. Badirudi juez kopuru bat dagoela, eta Elgetakoa baino froga garrantzitsuagoak zeudela. Hala ere, aurreko urte gehinetan juez egin zuenak neurtu zuen froga, Juan Martin Elortzak. Lehiaketan parte hartzeko elgetarra edo taldeko kidea izan behar da. Parte hartu zutenak zortzi izan ziren eta Juan Martin berak irabazi zuen.

Aurten ez da plater tiraketa antolatu. Hau antolatzeko ziurtasun neurriak hartu behar dira eta momentu honetan polikiroldegi inguruak ez ditu neurri horiek, egin diren lanak direla eta.

Bestalde zozketaren eta zenbakia 173 izan zen eta Fernando Oiangurene suertatu zen i rabazle.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO ESKOPETA EGILEA

Angiozar Bailarako Batzordea eta Abiadura Haundiko Trenak afektatutakoen ordezkari Deba Garaiko Mankomunitateko ordezkariekin bildu ziren

Pasa den uztailaren 21ean bildu ziren Angiozartik joandako ordezkari Deba Garaiko Mankomunitateko Hirigintza batzordea. Angiozartik joan zen ordezkari Bergarako alkatearekin batera joan zen, Mankomunitateak azken aldi honetan Abiadura Haundiko Trena (AHT) dela eta Angiozar bailaratik egingo lukeen bidari buruz eta bertan apeadero bat ezartzeko azaldu duen jarrerak argitzeko asmoz.

Esan bezala, iaz Deba Garaiko Mankomunitateak bat egin zuen Angiozar Bailarako Batzarrak eta Bergarako Udalak aurkeztu zuten Epeleko alternatibarekin eta, ondorioz, alternatiba hori bultzatzeko LKS injeniaritza enpresari estudio bat eskatu. LKS enpresaren proiektuak Angiozartik proposatzen zena (Epele bailaran interkanbiadorea ezartzea) egin zitekeela baieztatu zuen, baina abiadura haundiko trenentzako apeaderoa egiteko lekuri ez zegoela ere azalzen zuten.

Bestalde, bai iaz eta baita aurten berriz ere, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan sailak alegazioak aurkezteko epea zabaldu du, eta bi alditan Angiozar bailarako Batzarrak hasieratik mantentzen duen proposamena aurkeztu du, non kalterik gutxien sortzeko kriterioa oinarritzat hartuz, Epelen kokatzea eskatzen zen aipartutako

interkanbiadore edo trenbideen lotura.

Gauzak horrela, Deba Garaiko Mankomunitateak apeadero ezin zitekeela egin aitzakitzat hartuta berriz Angiozar bailaratik pasatzeko oneritzia azaldu zuen maiatzean egindako bilera baten, baina ez zuten hartu erabakia, Bergarako jaiak izanda Bergarako Udaleko ordezkariak ez baitzuten bertara joaterik izan.

Bitartean, Angiozarren hainbat bilera egin dira jarraitu behar den bidea zehazteko. Bilera hauen ondorioetako bat da orain hasi eta irailaren bukaerara egingo den firma bilketa. Era berean "Hiruauzo" deitutako errotari buruzko alegazioa ere aurkeztuko da eta, azkenik, Mankomunitatearekin eduki zen bilera edukitzea eskatu zen, gure iritzia ere bertan entzuna izan zedin.

Bileratik baikor irten zuten Angiozartik bertara jaon zirenak, izan ere eztabaida orduan ez baitzieten pixuzko arrazoirik eman Mankomunitateko ordezkariak apeaderoaren alde, eta beraz, Epeleko alternatiba indartua gelditu zen.

Dena den irailean bilduko den Gobernu batzordeak hartu beharko du azkenengo erabakia, bai alde bateko zein besteko arrazoiak kontutan hartuz.

Zabaletamendiko jaiak

Abuztuko 24 eta 25ean ospatuko dira San Bartolome jaiak Zabaletamendin. Urtero bezala ez da falta-ko girorik bertan, oporraldiaren bukaeran asko hurbiltzen baitira Zabaleta aldera jai giroaz gozatzen.

Frontoiko lanak atzeratuta

Frontoiko lanak atzeratuta doaz azken asteetan adjudikazioa bere gain hartu zuen enpresak langile gutxiegi darabilkielako lanok aurrikusitako epeetan bukatzeko. Esan bezala "Construcciones Berri SA" izan zen konkurtsoa irabazi zuen enpresa, baina honek "Etxaide SL" enpresaren esku utzi zituen lanok, beronek egin zitzaizkien. Horrela ez batak ez besteak ez dute bete hartutako konpromezua eta, ondorioz, Bergarako Udalak parte hartu behar izan du txosten bat idatziz eta enpresa hauekin lanak behar den epean bukatzeko akordio batera helduz.

Ondorioz "Etxaide SL" enpresarekin izanpetuta zegoen akordioa bertan behera utzi eta Beheko Kalea egiten ari den OZIO enpresari emango zaio lanok egiteko kontratua.

Tabernen oporrak

- Ortz, abuztuaren 4tik 24ra itxita.
- Beheko Taberna, abuztuaren 9tik 31ra itxita.
- Taberna Zaharra hilabete osoan zabalik egongo da.

Liburutegia

Bestalde, Angiozar Bailarako Liburutegia abuztu osoan egongo da itxita, irailak batean, martitzena, zabalduko delarik berriro.

Taberna Zaharra
jatetxea


Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar



IRAMA
Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
mensatel: 900282828
abonatua: 247262
tel: 789057-768025



Lehiaketako txokuan parte hartzen ez zarie kantsau.


Ojo!!! Laster afarixak zozketatziazi laga bihar dotzagu. Azkenengo aukerak emoten gabiz eta ez dou errezegixa ipintzia gura izan. Edukiñontzixa edo kontenedoria zan emon biharreko erantzuna. Batzuk bidali dozue kartatxo bat zer dan eta nun dagan esaten. Ez dozue esango oingua zailla zanik, ezta? desenfokau barik urten eban ta pentstzen giñuan karta gehixau jasotzia ta jaso be egiñ doguz.

Xabier Irazabalentzako erreza izan da nunbaitt. Bera da 37. aleko irabazlia.

Errezegixa ipinitta karta gutxiau jasotzen doguz. Horregaittik, orainguan zehozer zaillaua ipini dogu.

Zer da hor erdixan dagon hoi gauza haundixoi?

Erantzuna bialdu Goibekokalera. Salbador kalia 11-2. esk. Elgeta (Gipuzkua)



Ze pentsau jatzu Elgetako jaixetako girua?



Unai Txarraguirre
Jaiak 98ko aurkezlea

Bazkalordu inguruan heldu ganian ez zan inor ikusten kalia, ta dudatan egon gara hemen ezer egongo zanik baiña, gero, jende pila bat agertu da, ta oiñ giro politta dago. Jaiak 98n badare atal batzuk pila bat kostatzen diranak egittia. Hemen, beste leku batzutan ordubetian egitten doguna ordu erdixan egiñ dogu.

Asko gustau jata girua, nahikua jende dago plazan ta gehixenbat umiek dake martxia. Aurreko aldiz egon giñanian jende nausixaua zeuala pentsatzen jata. Jotera etorri giñan arte ez neban Elgeta ezagutzen. Asko gustatzen jaku herri txiki ta auzuetan jotia, montaje haundixak baiño gehixau.

Alaitz
Soñu jolia



Asko gustau jata. Lehenengo aldixa da Elgetako jaixetara etortzen naizena, Jaiak 98 grabatzera etorri gara ta pentsau jata herri txiki bat izateko sekulako animaziñua dagola. Espero dot datorren urtian lanera etorri biharrian juer-gara etortzia.



Jose Jabier
Txararangakua

Hamaika urtetan etorri gara jotera ta beti gustora etortzen gara hemengo ambientia ta jendia asko gustatzen jakulako. Azkenengo aldiz oiñ dala bost urte etorri giñan ta espero dot ambientia berdiña edo hobia izatia, jendia behintzat ez da falta.



Maitel Egués
Jaiak 98ko aurkezlea

Asko gustau jata, sekulako girua dago. Ambiente sanua dago, geu bezelakua.

Gorixo
Zezenak ekartzen ditfuana



Oiñ arte gustau jata, lehenau be egonda gare ta gustau jakun jai-girua. Herri txikittako girua gehixau gustatzen jaku toki haundixetakua baiño. Espero dot gaur plazia beteta ikustia, guk betikua emongo dogu, diskoko kantuak ta barrixak. Disko barrixa otsailian grabatzen hasi ta datorren udarako espero dogu etaratzia.

Maitel
Pandera jolia



F . O . R

Kalitate kontrola
Piezei azken ukituak

Tel: 76 80 38

salbador
19
behea

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

Antonio Rodrigues Da Cruz

Galdaragintza arina

IAPAM

Soldadura homologatuak

Hoditeria Erremitteritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA
Tel: 76 81 01 Faxes: 78 90 14

IBAIBARRIAGA

GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

7
L
E
A
P
A
7
N
D
E
9
7
A

M^a
ESTHER

Tel: 76 81 67

Aries: Urriak aurrera joiazak/n konturatu be egitteka. Baiña esaten dok/n ez dozula konpromisoik hartzia gura. Badakik/badakin, ezkondu, umiak...

Taurus: Bizimodua ez dok/don ardurak bakarrik hartzia. Sarritan, ondo pasau ta bestiekin be gehixau komunikau biharra izaten dok/don.

Geminis: Hi derrepentian ezkonduko hintzan, baiña ez dakak/dakan horretarako bideik. Aurten go adan egiñ biharko dituduk/dittun ahalegiñak.

Cancer: Oiñte dok/n hire sasoi. Jai dakazaken/dakazanan egunak aprobetxau, hik uste ez dittuanak/dittunak pasauko jatazak/jatanaz.

Leo: Espilluan aurrian ipintzen haixen bakotxian, "zelako edarra naixen" esaten dotzak/dotzan hire buruai. Segi hola urte askuan!

Virgo: Satellite bat emoten dok/don ta hor martxan, etheko teillatua be goitik bera jausi bihar jatak/jatan.

Libra: Oporretara fateko batenbat billau biharko dok/don, baiña beste aukera bat be badakak/badakan, bakarrik fan ta abenturak bizi.

Escorpio: Burua ezkutauta ez dok/don ezer arrelau bihar. Orduan, badakik/badakin zeoze egitteko ordua be badk/badon.

Sagitarius: Oiñ alperrik dok/don egunian lau ordu aiñtxitxika egittia, udia ailleau baiño lehen eiñ bihar dituduk/dittun aiñtxitxiketaldixak.

Capricornius: Belarriko miña dakak/dakan, baiña parrandan musika toplan jaokenian/jaonanian ez haiz arduratu be egitten.

Acuarius: Zure siñua inguratzen jaozaken/jaozanan izarrak ikusitta, hemendik aurrerako egunetan indar positibua emoteko prest jaozak/n.

Piscis: Oiñdiokan ez dok/don planik egiñ? Urten hadi hire arraiñtokitxik ta hasi hadi luzetara ta zabaletara igari egitten.

Juan Jesus Iturrigaztelu Bihargiña (42 urte)

Zertan diharduzu? Arrasateko tallar baten, kotxiendako piezak egittten.

Lana aldatzekotan, zein aukeratu-ko ziñuke? Ez neuke aldatuko. Gustora nago nagon lekuan.

Baserriko lanak gustatzen jatzuz? Bapez. Ta egitten dozuz? Gutxi.

Tabernia euki ziñuan sasoiatik zeren faltia igartzen dozu? Tabernako giruana.

Sekula idatzi dozu amodiozko kartaik? Bai.

Zure "top model" gustokuena? Ane Igartiburu.

Sekula ibili zara loibian motorrian? Ez.

Neska bat lehenengo zitan, nora eruango ziñuke? Asentzioko pagadira.

Nun pasatzen dozu denbora gehixau, kalian ala basarrixan? Kalian.

Zein miresten dozu? Natalia Estrada.

Bakarrik biziko baziña zure sukaldiak ontzixak garbitzekua eukiko leuke? Bai.
Zer ekartzen dotzue gogora honek berbok: Elgeta Tabernia,

Bastarrika, Abuztua. Sasoi baten nere bizimodua izan zan, jaiotetxia, opporrak ta trunkilidadia.

Fan zara San Fermiñetara aurten? Ez. **Sekula fan zara?** Bai, oiñ dala zazpi urte.

Txikiteuan ibiltzia ala zerbitzia dozu nahixau? Ooh!
Txikiteuan ibiltzia.

Zer da bazkal ostian egiñ bihar dan derrigorrezko gauzia? Siestia.

Markadorian zarenian ta pelotartidua aspergarrixa danian, zertan pasatzen dozu denboria? Patxaran edo trago batzuk har-tzen.

Zelakua da zure ametsetako neskia? Kalian airo-sia, sukaldian kuriosia ta ohian kariñosia.

Gustazen jatzuz mutillendako eraztunak ta belarritakuak? Bai, gustuen arabera dago.

Zuk ibiliko ziñukez? Neuk ez.

Hontxe jantzitxa dakazuzen kantontzilluen koloria? Azulak.

Sukaldari ona zara? Bapez. Jaten ona baiña sukaldari txarra.



OSTATU
JATETXEA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak Sukaldeak
Etxaurreak Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

Industriaren indar geldiezina

Industrializazioa dela medio Elgeta goitik behera aldatu da azken urte hauetan

Duela hamar edo hamabost urte Pagatzan zegoen futbol zelaiak gaur egun duen itxura izango zuenik inork gutxik espero zuen. Futbol zelaiak hainbat industria berriri utzi die bere lekua, hala nola, Tapem, Recide... eta hau gutxi balitz, etorkizunean, industria eremu hau lehenengo errekaraino luzatu daiteke, kontutan izan gabe Artekale eta orain Elkoro dagoen industria eremuak ere industrializatzeko asmoa dagoela. Industrializazioak ekarriko dituen ondorioak, txarrak eta onak, zeintzuk izango diren jakiteko, Udaletxean gai hauen arduraduna den Ignacio Lopez de Uralderekin egon da *Goibekokale*.

Mende berri baten atarian gaudela eta, badirudi, Elgetak ere prest egon nahi duela datorren mende horri begira. Elgeta, nahiz eta industria egon izan den, baserritarra izan da gehienbat. Gaur egun berriz ezin da horrelakorik esan. Animaliekin lan egiten duena, edota ortutik bizi dena gutxiengoa da. Aldaketa honen arra-



Elgetatik Elorriora doan bide bazterrak aldaketa nabarmena jasan du azken urte hauetan.

zoia industrializazioan aurki daiteke. Jendeak baserriko lana utzi eta lantegietan hasi da. Elgeta, azken urte hauetan batez ere, aldaketa horren islada izan da.

Lur guztia salduta


Pagatzako eremuan dugu aldaketa hau ondoen isladatzen duen tokia. Ia 100.000 metro karratu salduta daude industriari eraikitzeko, "Pagatzan, industriarako erabiliko den edo erabili daitekeen lur sail guztia salduta dago dagoeneko. Non amaituko den Elgetaren berrindustrializazioa?

Bertako jendeak nahi duenean amaituko da. Industrializazioa hor dago bere gauza positibo eta negatiboekin eta herritarrak erabaki behar du etorkizunean zer egin nahi duen". Horrela zioen Nachok Pagatzako industrialdeari buruz galdetu genionean. Dena den, erantzuna ez zen bere horretan geratu eta jarraian honoko hau adierazi zuen, " Elgetako industrializazioaren etorkizuna Pagatzako industrialdearen zabalkuntzan dago. Ideiak badaude eta helburua eremu hori handitzea da. Horrek ez du esan nahi hau burutuko

denik, baina Udaletxeak kontutan hartu du aukera hau".

Artekaleko eremuari buruz, hau da, Olabarria autobusen garagea zenetik gora, esan, diseinua eginda dagoela eta bertan enpresa txikiak jarriko liritezkeela, batez ere 3. esparrukoak (zerbitzuak...).

Industrializazioaren alde negatibo bat inongo zalantzarik gabe kutsadura da. Gai honen inguruan industria teknikariak gauzak oso argi dauzka: "Industria dagoen leku guztietan dago



Jesús Marí Montiel
**ITURGINTZA
 ETA BEROGAILUAK**
 Artekale 3.
 Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE
 ETA BAINUGELETAN**

Tel: 76 81 31
 M^a Jesus
 Arrazola

V I V O
 J a n a r i
 d e n d a

**E
 HARATEGIA
 A
 S
 T**

San Roke 6
 Tel: 768168.

kutsadura. Guk ahal ditugun medio gehien jartzen ditugu ingurugiroa kalte-tua izan ez dadin”.

Herriaren esku

Egun, Elgetan dauden enpresek 500 lanpostu baino gehiago sortarazten dituzte. Etorkizunera begira herriak erabaki beharko duela uste du Nachok, “Zer nahi du herriak? Elgeta pozik al dago duenarekin eta ez du enpresa gehiago ekar-tzerik nahi ala bestalde aurrera jarraitu nahi du? Denbora gutxi barru bi enpresa berri etortzea espero dugu. Bata txikia (15 langile inguru) eta bestea handia ez ezik (70 langile inguru) punta-puntakoa. Bi enpresa hauenkin Pagatzako industrialdea bukatutzak jo genezake. Etorkizunera begira hiru aspektu nagusi hartu beharko direla kontutan uste dut: jende-aren nahia, metro karra-tuen eskaintza eta jardue-ra ekonomikoaren dibert-sifikazioa”. Honekin

“Non amaituko den Elgetaren berrindustrializazioa? Bertako jendeak nahi duenean amaituko da. Industrializazioa hor dago bere gauza positibo eta negatiboekin eta herritarrak erabaki beharko du etorkizunean zer gura duen” dio Ignacio Lopez de Uraldek.

loturik “Parke Industra-la” delakoa sortu beharko litzatekeela adierazi zigun Udaletxeko eragile industrialak “Elgetaren apustua, alde batetik, tor-lojuak oinarritzat dituen produkzio propioaren aldekoa izan beharko litzatekeela uste dut, hau da, honen inguruan “Par-ke Industrial” bat sortu. Bestetik, zerbitzuen alde-ko apustua ere egin beharko litzateke”.

Elgetaren alde apustu egin duten enpre-sak asko izan dira azken urteotan, jakinda gainera herri hau ez dela inoiz izan oso industrial. Hala eta guztiz ere aldaketa honek badu bere arrazoia




Ignacio Lopez de Uralde, udaletxeko industria eragilea.


“Ez ditzagun geure buruak engainatu. Elgetak duen erakarpen bakarra lurraren prezioa da” eman zigun aditzera Nachok. Bere alde negati-boa ere badu Elgetak

“Bai. Esan beharra dago Elgetara heltzeko bideak ez direla onenak”.

B u k a t z e k o , industrializazioak Elgeta-ri ekarri diezazkioken onurez eta desabantailez galdetu genion Nachori. “Onuren artean lanpos-tuen finkatzea egongo litzateke. Elgetako langa-bezi tasa % 4, 57an dago (19 pertsona inguru). Bes-te onura bat sortutako jar-duera ekonomikoak Elgeta-ri berari ekarriko lioke-en onura ekonomikoa da (taberna, denda...). Desabantailen artean zarata, trafikoa etab. egongo lirta-teke”.



Denbora gutxi barru beste bi fabrika izango ditugu herrian.



Lanak beti azkenerako

Kai-
xo Goibeko-
kaleko irakurle
guztioi:

Gu, D.B.H 1.maila
amaitu dugun ikas-
leak gara eta oporre
buruz idatziko dizuegu.

Beti qpor luzeak
heltzeko irrikaz egoten
gara eta gero heltzen
direnean ez dakigu zer
egin. Goizak,okupatuak
eukitzen ditugulako azkar
pasatzen zaizkigu. Batzuk
denbora libreka eukitzen
dutelako eta besteak partikularra,
baina arratsaldetan ez dugu jakiten
zer egin edo pisinetara joan
edo bizikletaz ibiltzen gara.
Batzuetan, aixola errekarara joateak
ere ez digu kalterik egiten. Ber-
garako igerilekura joaten garenean
gure eskolako lagunak ikusten ditugu
eta ondo pasatu eta gero, berriz ere,
etxera itzultzen gara. Eguraldi txar-
rrekin frontoira joaten gara raketan
ibiltzera edo bestela norbaiten etxera
joaten gara, jolastera, bideo bat
ikustera eta hainbat gauza egitera.
Udan ere merendola asko edukitzen
ditugu, alde batetik, kuadrilakoa,
urtebetetzeak betetzen dituzten
pertsonek...

Hondartzara joaten
garenean pilotarekin, baloiarekin,
urarekin... jolasten dugu geldirik ezin
garelako egon. Eguzkiarekin
kixkaldu ondoren, bero-bero,
etxera itzultzen gara.

Jakingo duzuenek udan
AEK-koak etortzen dira eta askotan
beraiekin pasatzen ditugu
arratsaldeak. AEK-n lagun
berriak egiten ditugu eta euskaraz
mintzatzen laguntzen diegu.
Etxera heltzeko garaia heltzen
zaienean guk pena hartzen dugu,
baina gure arteko harremanak
idatziz jarraitzen ditugu.

la gehienok abuztuan
joaten gara oporretara beste
norabaitera eta denboraldi batean
ez dugu izaten elkar ikusteko
aukerarik. Oporretan ez direnak
inora joaten oso ondo pasatzeko
aukerak izaten dituzte, adibidez:
beste herri batzuetako jailetara
joatea, edo herrian bertan dauden
ekintzetan parte hartzea.

Abuztuan jende gutxi gelditzen
da gure herrian eta taberna

batzuk ere itxi egiten dituzte.

Guk udarako gomendio batzuk
emango dizkizuegu:

- 1-Ondo pasatu
- 2-Jaiak aprobaxatu
- 3-Lan gutxi egin
- 4-Kirola egin
- 5-Diru gutxi gastatu (gastatu behar denean ondo pasatu)

Gure ustez, ikasle guztioi antzerakoa gertatzen
zaigu. Baina, esango dizue, zer
ote da ikasle guztioi gertatzen
zaigun gauza? Beno, ba, ez baldin
badakizue esango dizuegu:
ETXERAKO LANAK BETI AZKENENGO EGUNERAKO UZTEN DITUGULA
edo ez al da egia?



Udan, AEKkoekin egindako harremanei, neguan, karta bidez ematen diote jarraipena.

6-Gutxi edan (edan beharra al dago ondo pasatzeko?)

7-Lagunekin edo familiarekin ondo pasatu

Guk uste dugu gomendio hauek jarraitzen baditugu opor on batzuk pasatzeko aukera handia edukiko dugula.

Beno ez daukagu ezer gehiagorik kontatzen oporre buruz eta agurtzeko garaia ere heldu zaigu. Oporrak ondo pasa ditzazuela eta asko aprobaxatu (toperaino).

D.B.H 1.maila amaitu dugun ikasleak

HAIZEA

TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.

Tel: 768256

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETAIA ETA ELJAZIO SISTEMAK

Berraondokua 2/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

TXOKOLATEZKO MOUSSA

Sukaldaria: Eider Saratsua

Haizea Taberna



NOLA PRESTATU:

Hasteko, ontzi batean txokolatea eta gurina urtu. Honi esnegaina gehitu.

Beste ontzi batean zuringoak irabiatu ondo harrotu arte.

Bukatzeko, aurretik egindako nahastea eta zuringoak poliki-poliki eragin. Ondo nahastu, baina beti kontuan hartu, bizkor eraginez gero zuringoak harrotasuna galtzen duela.

Ontzi egoki batzuetan banatu eta izozgailuan sartu gogortu arte.


OSAGAIK:

400gr. urtzeko txokolate beltza

300 gr. gurina

10 zuringo

litro erdi esnegain



GOMENDIOAK:

-Harrotutako zuringoa poliki-poliki eragin behar da bestela harrotasuna galtzen du eta.

-Hatzamarra zuringotan sartu eta altxatzean erortzen ez bada, zuringoak ganoraz harroatuta dauden seinale.

-Zuringoak gorringotik banatzerakoan, gorringo tantarik ez jaustea oso garrantzitsua da.



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxe: 768243

TAPEM, S.A.

Trokela eta estanzak
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

EMILIO MANDALUNIZ: "URTERO-URTERO NEKATU EGITEN DA. LAN HANDIA DA LASTERKETA HAU ANTOLATZEA"

Emiliok 14 urte bete ditu aurten Elgetako Txirrindulari Elkarteko (E.T.E.) lehendakaritzan. Hamalau urte hauetan, besteak beste, Euskadiko Mendi Kriteriumaren antolaketan arduradun nagusia izan da beste elgetar batzurekin batera. Aurten go lasterketak, makina bat buruauste sortu eta lo ordu asko kendu dizkion arren lasterketa honen arduradun nagusi bezala ikusi dugu.



Angel Basauri eta Enrike Ibaibarriagak euren artean egindako postura bat medio irten zen lasterketa antolatzeko ideia. Lehenak, tourrean 480km.ko etapak izanda zirela zioen bitartean besteak ezetz zioen. Azkenik, kazetari batek 480km.ko etapak izanak zirela baieztatu

zuen. Galtzaileak ordaindu behar izan zuen afari baten tertulian gauzatu zen guztia. Hurrengo urtean lasterketa antolatu zuten. Emiliok esan digunez, beraiek prest zeuden antolaketa aurrera eramateko, baina, gai latzena ekonomikoa zen. Ez zekiten dirua nondik lortu. Gauzak argiago ikusi ziren Langarika eta Jose Antonio Urizarren elkarlanari esker. Hauek, Eusko Jaurlaritzatik diru piska bat etor zitezela adierazi zieten. Tamalez Langarika urte horretan hil zen. Hau gutxi balitz, Jaurlaritzako dirulaguntzarik ez zitzaizen heldu, "larru bizian hasi ginen, Eibarko lagunei aholkuak eskatu, eta pare bat urte errodate bezala ibili ondoren gaur arte iritsi gara". Beraz, hasierak ez zituzten batere errazak izan lagun talde honek. E.T.E.-ko buru izateak, urtero-urtero asko nekatzen duela adierazi zigun:

"Hasi, koadrilakoak hasi ginen Jose Antonio, Jesus, Javier, Manu, Patxi,... eta beste zenbait gazteri laguntza eskatuaz, eta presidente zehatz bat gabe".

Partehartzaileen jeitsiera

Aurten, partehartzaileei dagokionez egon den beharadagatik galdetzean honela erantzun digu: "Bizkaiko Birara joan zaizkigu txirrindularirik honenak izan ere, bira maila handiko lasterketa da. Hona ere bidali zituzten aldapan ibiltzen zirenak, kanpotik ere ekarri behar genuen talde katalan bat baina, ez zen etorri, bi talde frantsezek ere kale egin ziguten azken momentuan". Datorren urterako lasterketa dataz aldatzea espero dute. Edonork pentsa zezakeen hau aurretik jakin zitekeela, baina Bira internazionala izatean U.C.I.-k Bira non sartu erabakitzen du (eta ez Euskal Federazioak), "Datorren urterako federazioarekin egongo gara, ea lasterketa aurrera dezakegun jaiekin bat egiteko. Nik uste lortuko dugula. Gainera Birara etorriko liratekeen zenbait talde edukiko genituzke."

Aurrekontua

Lasterketak milioi eta erdiko aurrekontua dauka: "Diru aldetik, Renaultek ematen digu gehien, gainera karabanako eta juezen kotxeak ere beraienak dira. Udaltxeak ere laguntza ematen digu, fabrika batzuk, taber-

nak, errifarekin ere nahiko diru...". Beste maila bateko lasterketa baten antolaketatik galdetzean, jubenilen lasterketa bat egiteko aukera aztertu zutela esan zigun. Arazoa, Elgetak dituen maldetan dago. Federazioak, gutxi hori arautua du, eta Elgetatik irten eta bueltatxo bat emateko merezi ez duela esan zigun. Dirua ere, beste arazo bat izanongo litzateke.

Lasterketa berandu hasi

DYA-rekin gertatu zen ezulertze batek eraginda, lasterketa 25 minutu berandu hasi zen. Lasterketa, ezin zen hasi anbulantzia gabe hasi, eta momentuz urduritasuna nabaria izan zen, "nik ordutegia ongi bidali nien fax bidez, 15:30-tarako irteran egon behar ziren, baina beraiek konfirmatzerakon, akatsez, 16:30-tan etorriko zirela esan zidaten. Nik konfirmazio hori hartu baina mila zeregin nituen ez nion arretarik ipini, ondo egongo zela uste nuen".

Bide batez, Emiliok, norbaitek E.T.E.-an sartu nahi badu gustora hartuko dutela adierazi zigun.

Estetika eta Masaia

MAITE CEBRIAN

Andra Mari Plaza, 1 Komentu Kalea, 12 - 1
Tel: 943 76 82 72 Tel: 94 681 63 75
Elgeta Durango

ANA LIBURUDENDA

Zatuz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078

JUAN LUIS UBERA: "MOMENTUAN 4 T'ERDIKO TXAPELKETA KOLOKAN DAGO"

Juan Luis Ubera, gaur egun Euskal Herrian afizionatu mailan jokatzeko txapelketa ezagunetako baten arduradun nagusia dugu. Duela 27 bat urte hasi zen txapelketa hau egiten. J.R. Basauri izan zen txapelketa honen sortzailea. Hasiara batean edade guztiei irekia zegoen txapelketa geroago, 23 urtez azpitikoetara mugatu zen Juan Luisen ardura-pean (1985az gero).

-Zein balantze egiten duzu txapelketaren gainean?

Uste baino hobea izan da, kontutan izanda iaz hemen puntan ibili ziren 12 bat pilotarik saltoa eman dutela. Bajoi bat egon zitekeela uste genuen, baina maila ona ikusi ahal izan dugu.

-Muruamendiaraz izan da txapelketako pelotariarik onena?

Ez du egin txapelketa oso ona, baina beste pilotari batzuk baino finagoa izan da.

Erdifinaletan 17-11 galtzen joan zen Chaffeeren aurka eta partidua zorte piskatekin irabazi zuen. Gainera beste bi partidutan, duen mailarako nahiko larri irabazi zuen.

-Muruamendiaraz finalean izanda zergatik ez zen frontoia leporaino bete iaz bezala?

Iazkoa kasu arraro bat izan zen. Iazko kadeteek,

bai Etxanizek eta batez ere Urberoagak, jende ugari mobilizatu zuten. Gainera, iazko nagusien finalak morboa zeukan: batetik, Berasaluze; bestetik isil-isilik azkenera iritsi zen Galartza. Beste arrazoi bat Bergaran San Martzialak izatea izan zen. Honek frontoia ibiltzen den jendea ere kenduko zigun.

-Diru kontuan beherakadarik nabaritu ahal duzue sarrereren salmantan?

Bai, diru gutxiago atera dugu. Iaz aurten baino 300.000 pzta gehiago atera genituen.

-Duela urte batzutako maila lortuko dela uste ahal duzu?

Nik uste dut, hemendik bi urtera iazko maila berreskuratu daitekeela.

-Nondik lortzen duzue dirua pilota elkarteetan?

Laguntzarik gehiena ETBk ematen digu. Aurrekontuaren erdia baino gehiago.

Udaletxeak ere urtero ematen digu dirua. Diru honetatik erdia txapelketarako da eta beste erdia urteko ekintzetarako. Esan behar dut, urtero, baina batez ere aurten, enpresek diru gehiago eman digutela.

-Aurrera begira zer?

Txapelketaren gainean, momentu honetan, asunto serio bat daukagu. ETBek, frontoi bat berdez


margotua ez bada, go duela partidari eman go du lege-tzat. Beste herrietan baldintza hori jartzen du beti. Guri aurtentzako faboretzako bat egin digu eta partidua mordoxka eman dizkigu telebistaz.

-Zein irtenbide ikusten duzue?

Berdez pintatzea erreza da, baina honek argiak aldatu beharra dakar. Energi gastua hirukotza izango zen. Bestalde teilatua hondatuta dago eta aldatu beharra dago. Udaletxearekin hitzegitekotan gaude. Behin honelako gastu bat eginda frontoiaren funtzionamendua aztertu beharko zen. Honek guztiak, 20 milioitik gorako aurrekontua izango luke.

-Beraz esan dezakegu datorren urteko torneo kolokan dagoela?

Bai horrela da. Baina irtenbide bat egon daiteke. Euskadiko federazioak deitu digu duela gutxi, Elgetako torneo hau, "Euskal Herriko afizionatu mailako laut'erdiko txapelketa"ren izenpean egiteko. Honek alde on eta



txarrak ditu. Final hori bai hemen jokatu zen, baina beste partida batzuk ez ziren hemen jokatu. Patrozinadoreak beraiek lortuko zigutela adierazi ziguten. Honek aurretik konponketa eta margotzearena hitzegin behar da udaletxearekin. ETBko Mikel Olazabal eta Udaletxearekin bilera batzuk egitekotan gaude. Hori bai, ETBk ez digu teilatua ordainduko, ETBrek urte batzutarako kontratu bat egingo litzateke.

-Zeintzu osatzen duzue lan taldea?

Bagaude urtean zehar lan egiten dugun sei-zazpi pertsona. Hauetako bat, jubilatze gertu dagoen Valentin dugu, gero Juan Jesus L. eta Jose Mari B. ere hor dabilta. Gero Juan Ramon I. eta Rebeka pieza klabeak dira taldean papeleo guztia daramate eta.

ERREKALDIA

Ermita: San Kristobal

Jaia: Uztailaren 10ean

San Kristobal egunaren bezperan edo bezperaurrekoan hasten dira jai antzean pinua jasotzearekin. Hau iluntzean egiten da eta ondoren auzoko gazteek txokolate jana egiten dute.

Normalean bi edo hiru egunetan izaten da erromeria, horietatik San Kristobal eguneko auto bedeinkaziñoa delarik ekintzarik famatuena (kotxeak lorez adornatuta bide baztarrean egoten dira parkatuta eta abadeak banan-banan bedeinkatzen ditu). Dantzaldiak gauez izaten dira eta San Ferminetara joan ez direnen topaleku.

Gainera martxoko egun baten meza ospatzen dute auzokoen alde (Hernandadeko Meza) eta beste meza bat maiatzak batean.

Auzotarren bat hiltzen denean bederatziruureneko meza ere bertan ospatzen da.

Baserriak eta etxeak:

- Loidi Etxebarri
- Loidi
- Loidi Bolu
- Loidi Bolu berria
- Askasibar
- Askasibar Bolu
- Askasibar Bolu berria
- Belastegirena
- Meltxorrena (Unamuno Berri)

- Aldai Etxebarri
- Aldai Gaiñekua
- Aldai Aurrekua
- Aitzol
- Gaztelu
- Aldai Azpikua
- San Kristobal
- Elkone (Elkoro Berezibar)
- Bitzibar (Berezibar Erdikua)
- Bitzibar Barrena (Berezibar

- Barrena)
- Edui (Eduegi)
- Amuskibar
- Amuskibar Bolu
- Gaittao Aldekua (Garitano A.)
- Gaittao Gainekua (Garitano G.)
- Gaittao Erdikua (Garitano Markezkoa)
- Gaittao Barrena (Garitano B.)
- Osingain

Errekaldeko errota

Lau dira gaur egun zutik dirauten etxe edo eraikuntzak eta garai batean errota izan zirenak, horietatik bat martxan oraindik. Errota izena ordez "bolu" izenarekin ezaguna izan ziren garai baten eta hala ipini ziren izena ere jabearen etxearen izenari gehituz: Loidi-bolu, Askasibar-bolu, Amuskibar-bolu, hirurak jatorrizko etxetik hurbil, errekan behera.

Laugarrena kasu berezia da erroten munduan, iza ere, Hiruauzo errota izenarekin ezagutzen duguna (Loidi Etxebarritik hurbil) mende honen hasieran argi indar zentrala izateko jaso zen eta konpainia elektriko haundiak sartzeko hasi zirenean bere lanari utzi eta jabeak ziren baserriarrek erabilera berri honetarako egokitu zuten. Baina ikus ditzagun banan-banan Errekaldeko lau errota.

Loidi bolu

1929ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatu zen nola Eustakio Loidi jaunak, Loidi baserrikoa, eskatzen zuen Angiozar erreka uren aprobetxamenduaren inskripzioa, nondik 21 litro segunduko



Amuskibar baserria eta aurrean Amuskibar bolu errota, erdi errota, alboan egindako etxe bizitzarekin.

hartzen baitzituen eta bere ur-saltoaren altuera 6,50 metrokoa zen, etxaburuan zegoen presatik turbinaraino. Aprobetxamendua Loidi-bolu errotaentzat egin zuen, uga-zaba lez, nahiz eta garai hartarako Etxeberria familia bizi bertan maizter.

1934. urtean urunetarako errota publikoa izendatu zuten Felix Etxeberriaren izenean, eta 1944tik 1963rarte Lorenzo Etxeberria Lazpiurren izenean egon zen, urte horretan baja eman zitzaionalarik erregistroetan errota bezala.

Dena den Loidi boluk errota izateari 1952 inguruan utzi zion, orduan kendu zituzten eta errota-riak eta beste tresneria guztiak Hiruauzoko errota egiteko.

Angiozar erreka uren egiten zuen lana, honen eskumaldera dagoelarik kokatuta. Ponporta (Angiozarren horrela deitzen zaio errota presari, "compuerta" hitzetik eratorrita) Loidi eta Loidi-etxebarri bitartean dago, Gaur egun bainu leku bihurtua. Bi turbina zituen bata burdinazkoa eta bestea harritzkoa (azken hau aurtu egin

zen) garia eta artoa ehotzeko (ixotzeko) harriak mugitzeko. Ehotutakoaren %10 kobratzen zuten "laka" lez.

Loidi baserriaren errota izan zen Loidi bolu eta baserri bezala ere aspalditik funtzionatu izan du. Lorenzo Etxeberriak erosi zion Eladio Loidiri mendetako lotura etenez. Egun, hustuta dago, Etxeberria familiak erreka bezalako bertara egin zutenetik eta bertara bizitzera joan duela sei urte.

Askasibar bolu

Aurrekoan bezala garai baten errota izandako baserria dugu hau. Loidi bolu etxearen parean zeukan ponporta, 30 urte ingurutik gorako denak gogoratuko dutena, bertan ikasi zutelako igerian egiten, baina hau 70. hamarkadan desagertu zen. Kanala nondik nora zihoan antzeman daiteke baina ez dago ez presa ezta beste errota eraikuntzaren arrastorik.

Balentin Belastegi bertako semeak inoiz ez zuen entzun errota izan zenik ere, etxearen izenak hala aitortu arren, eta, ondorioz, aspaldi lagako zion zeregin horri.

Askasibar bolutarrak erreka bezalako bizi dira, etxe honetatik "sortu" diran beste bi etxetan "Askasibar bolu" eta bide ertzean dagoen "Belastegirenan". Etxeak berak duen erabilera baserri tresneria gordetzeko eta biltegiarena da.

Amuskibar bolu

Angiozar errekan behera hau da azkenengo errota, besteak bezala hurbilean duen etxeari lotua bere



Askasibar bolu etxe berria erreka ezkerrean. Atzean ikus daiteke Loidi bolu etxe berria ere.

sorreran eta gero baserri etxe bihurtua. Badakigu 1901 urtean jadanik ez zuela errota lanik egiten, Esteban Irizar jaunak argi indarra sortzeko egin zuen uren aprobe-txamendurako eskariagatik. Bertan irakur daiteke ondoko hau:

"Horretarako Amuskibar izeneko aspaldiko errotaren eta gaur egun baserri bihurtua dagoenaren presa konpontzea nahi da"

Auzokoen esanetak gutxienez 200 urtean ez du errota lanik egin.

Oso egoera onean ditu erreka preso (ponporta) eta etxaburuan dagoen presa ere, kanalarekin lotuta. Azken bi hauek zikinak egon arren ondo antzeman daitezke.

Besteak ez bezala erreka ezker aldean dago, terrenoaren aldapa aprobetxatuz ur saltorako.

1970. hamarkadan etorkinak bizi izan ziran bertan, bailarako beste hainbat etxeetan bezala. Harrezkeroz ez da inor bizi bertan eta bere gainbehera bizkorra izan da, ia erorita dagoelarik.

Hiruauzo errota

Hasieran aipatu dugun lez argietxe izatetik errota izatera pasatu kasu bakarrenetarikoa da errota honena.

Gipuzkoako Boletinean 1955an agertu zen errota martxan jartzeko baimenaren eskaria:

"Don Florencio Ruiz de Eguino, en nombre y representación de la "Sociedad Iru-Auzo", solicita la inscripción en los registros de



Loidi eta Askasibar etxeak erreka ondoan. Hauen errota izan ziran Loidi bolu eta Askasibar bolu, etxeetatik hurbil.

aprovechamientos de aguas públicos, creados por el Real Decreto de 12 de Abril de 1901, del que viene disfrutando con las aguas de la regata de Angiozar, con destino a la producción de furza motriz para accionamiento del citado molino, del que dicha sociedad es propietaria..."

1952an hasi zen errota izaten, Loidi Boluko errota tresneria aprobetxatuz. Bi turbina ditu, burdinazkoak Bilboko Eustakio Bilbao jaunak eginak. Beste errotetan bezala bi harri daude: bata gariarentzat eta bestea artoarentzat. Harrion arrakalak berriztu behar zenean Floren Ruiz de Eginok egiten zuen.

Bi presa ditu: bata Angiozar erreka urrez hornitua, ponporta Aldaitxarren errota parean duela eta ura tuberian garraiatuz lehengo kanaletik; ta beste presa errota alboko errekatxoan. Bien artean potentzia handia ematen diote errotari presok jasotzen duten ur emariagatik, eta Urkuluko urak Bergarara heldu zirenerarte bertatik eramaten zen edateko ura ere Bergarara.

"Hiru Auzo" izena Angiozarko hiru auzotako sozioek osatzen dutelako da. Errekaldeko hamaika etxe, Azkunetako zazpi etxe eta Par-teittiko beste zazpi etxe dira bertako bazkide, guztira hogeitabost bazkide. Ez dago errotaririk, bakoitzak egiten du errotari beharra duenean. Ederto zainduta dago eta funtzionamenduan.

Abiadura Haundiko Trena egingo balitz orain duen trazatuarekin errota hau desagertu egingo da, bera dagoen lekuan dago proiektatuta eta "Y" (i grekoa) famatuaren lotura.



Etorri dira beraniantiak

Elgeta, sasoi batian beranio-ko herrixa izan zan.

Jaixetako eguen atsaldian Salbador kalia txiki-teuan gebizela han ikusi giñuan aurten be, Santxoneko andra nausixa etxerako bidian, ta orduantxe etorri jatan ahora "etorri dira aurten be beraniantiak!

Gaztienok ez dozue igual jakingo, baiña Elgeta, sasoi batian beranioko herrixa izan zan. Gehixenak bilbotarrak ta eibartarrak izaten ziran, asko asko be ez ziran izaten, baiña zahar, gazte ta abarren artian hogeiren bat edo gehixau izaten ziran.

Ta zer dala ta etortzen ziran? Zer dakau Elgetan bertara beraniantiak etortzeko? Gehixen gehixen pakia. Elgetan trankill ibilli leike, zahar ta gazte, atso ta mutiko, neskato ta agure ta iñon diran danak, kalia pasia-

tzen, alkarri egunonak emon ta pake santuan.

Gai-

ñera, azkenengo sasoi, agroturismua dala ta Elgeta moduko herrixak modan jarri dira. Kapitaletako jendiak pakia bihar dau ta horregaittik etortzen dira. Elge-

tan, bertan be, agroturismoko etxeik balego, seguru nago bete egiñgo litzakiela.

Baiña musak huelgan



dabizkidan egunotan, amaittu daidan hau testuau beste beraniante klase bat aittatuta.

Iaz hasi ziran etortzen ta horrei be gustau nunbaitt aurten be

etorri dira ta. Euskeria ikastera etortzen diranen gaiñian nabill. Hemen dakauz euren ahaleginik haundixenak egitten, gixajuok, zeozer entendittu guran, ta ezebe entenditu eziñ. Geuk ententitzen dotsau, baina eurek, ederrak zereginak hartzen dittue! Iñok sekula aittatu ez dotsen moduan berba egitten danok. Egon zaittie trankil, ezebe ulertu ez arren. Denbora pixkat biharko dozue, baiña azkenera, Elgetako natiboik aborigenai be ulertuko dotsazue ta, hori ahalegintxuoi egitten bozue.

Han! Azkenerako urten dau ezkutuan nekan honek maixu pelmionek, eskerrak aurki goiazela bixok (maixua ta ni) oporretara ta berriro be menpian hartuko dotela hori pelmioi. Bittartian, beste danok be, ondo ibilli !!

Jabier Arantzeta

Elgeta moduko herrixak modan jarri dira. Kapitaletako jendiak pakia bihar dau ta horregaittik etortzen dira.


Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.

Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.


tel: 768273



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009



Andrak baloian atzetik

 iñ dala hamazazpi urte jokatu eben hau partidua, 1981. urtian. Ezkonduak ezkondu barik euazenen kontra jokatu enben. Erretratukua ezkonduen taldea da, ez da makala gaiñera. Hamaikako andra kuadrillia dago hemen. Izango ete zan ordezko jokalaririk? Ba, bai itxuria.

Danak bardin-bardin jantzitxa dare. Adidasen iragarkixa izan zeinken trankill-trankill hau erretratuau. Ez ala?

Galtzailien taldea etaratzia pentsau dogu, badakigu ta orduan nahikua kostauta sartu zittuela zortzi gol. Bestealdian, ezkondu barikuak jokatu eben lehen esan dogun moduan eta harek hamaika gol sartzeko kapazak izan ziran.

Goikuak: **Edurne Rekondo, M^a Karmen Urtzelai, M^a Karmen Valencia, Arantxa Arrieta, Begoña Ardantza eta Saturnina Peñalver.**

Behekuak: **Kontxi Bolinaga, Pilar Bolinaga, Begoña Loiti, Eli Arrizabalaga eta Ane Miren Arantzabal.**

Hemen gara!

Todo terreno CRV



HONDA

Prelude



ACCORD



CIVIC 3 ate



CIVIC 5 ate

MENDIOLA

Araba etorbidea, z/g. ARRASATE
Erakusketa eta Salmenta: Tel.: 771625
Mekanika eta Karrozeria: Tel.: 797564



HONDA

egin-ekin

Elgetako
gazte
asanblada